

Aurkibidea

1.Sarrera	2.orria
2.Sopela Kosta Fest (SKF) helburuak	2.orria
3.Antolakuntza deskribapena	3.orria
4.Komunikazioa balorazioa	4.orria
5.Ekintzen balorazioa eta etorkizunerako hobekuntzak	7.orrian
6.Brigadako en balorazioa	7.orrian
7.Turismoko en balorazioa	7.orrian
8.Udaltzaingoaren balorazioa	8.orrian
9.Festibalaren balorazio orokorra eta herrian sortarazitako inpaktu	8.orria
10.Ondorioak	8.orrian
11. Ekintzen azalpen ekonomikoa eta partidaka desglosea.	9.orria

SOPELA KOSTA FEST BALORAZIO TXOSTENA

1. Sarrera

SOPELA KOSTA FEST, Irailaren 24tik 28ra arte ospatu den festibalak hiru osagai nagusi izan ditu: NATURA, SURFA eta MUSIKA.

Alde batetik, **naturaren babesa**. Azken hilabeteotan, Sopelan hainbat ekimen burutu dira jasangarritasuna bultzatzeko asmoz: SHK Sopolako Hondakinen Kontseiluak egindako lana, bidegorri-sarea handitzeko asmoa (Gatzarriñe kalean eta Atxabiribil inguruan), Urko paduraren berreskuratze-ekologikoa, HAPO berriak bultzatuko duen filosofia berria... Horri bultzada emateko asmoz, jaialdian naturaren babesa aldarrikatu da, tailer eta ekimen ezberdinen bidez.

Bigarrena, **surfa** izan da. Ez dago esan beharrik surfak Sopelagaz duen harreman estua. Hori indartze aldera, hainbat txapelketa eta tailer antolatu dira, Sopolak surfaren munduan duen izena indartzeko asmoz eta surfarekin erlazionaturik dagoen oro euskal mundua eta euskararekin lotzeko.

Azkenik, jaialdiak hainbat kultur jarduera izan ditu (antzerkia, zinema, erakusketak...). Eta kulturaren baitan, **musikak** leku berezia izan du jaialdian, udaletxe plazan jarri den karparen barruan, lehen mailako taldeak elkartu baitira.

Jaialdia, beraz, multidisziplinarra izan da, eta publiko ezberdinak parte har dezan: adin ezberdinetako jendea, surfariak, ingurumenagaz kezkatutako herritarrak, musikazaleak e.a. Jaialdiak gune nagusi bi izan ditu: hondartza ingurua eta udaletxe plaza .

Jaialdiaren antolatzailea eta kudeatzailea Sopolako Udala izan den arren, herriko hainbat elkarte lankidetzan ibili dira, jaialdiari jarduerak gehituz eta antolatuz. Jaialdiaren helburuetako bat hori da, hain zuzen ere: elkarrekin antolatzen dituzten jarduerari ere bultzada ematea.

Eta noski, jaialdiaren helburu nagusietako bat turismoari bultzada ematea izan da, inguruko herrietako bisitariak erakartzeko asmoz.

2. Sopela Kosta Fest-aren helburuak

- Herria konpaktatzen duen gogo-aldarte alai eta atsegina hedatzea.
- Sopela herria eta surf kirola uztartzea.
- Kultur eta natura turismoa sustatzea.
- Herriko ekonomian inpaktu onuragarria lortzea.
- Ingurunearekiko jarrera aktiboa eta konprometitua hedatzea.

- Herri dinamika parte hartzailea sustatzea.
- Gaurko euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzea.
- Kirola eta bizi-ohitura osasungarriak bultzatzea
- Sopela kultura erreferente bilakatzea
- Euskara kontextu ezberdinetan presente egotea.
- Sopelaren kalera begirako irudia lantzea: berritzailea, parte hartzailea, naturazalea eta euskalduna

3. Antolakuntzaren deskribapena

Festibalaren antolakuntza urtarrilean hasi zen. Itxaslehor enpresa lanean hasi zen festibalaren inguruan eta udabeeria hasi orduko lehenengo batzarrak izan genituen udaleko sail ezberdinekin. Bi astero batzarrak izan genituen baina uztailaren hasieran Itxaslehorrek zuen konkrezio maila eskasa ikusita, lana udal teknikariekin egitea erabaki zen. Honi, plangintzaren lanketanzehar egon ziren ikuseuntu nagusi b gehitu ahal zaizkio: batetik, lehen esan bezala epe mugei ez egokitzea eta bestetik, aurkeztutako ekintzak herriko idiosinkrasiari (herriko surf industria, elkarteak...) ez egokitzeak.

Uztailetik aurrera udaleko hainbat sailek bultzatu eta garatu zuten ekimen hau:

- Kultura: lan karga beraiengan jausi zan nagusiki eta bultzatzaile/antolatzaile nagusiak izan dira.
- Turismo: hurrengo urteetan protagonismo handiagoa hartu behar dutenak.
- Ingurumen saila:
- Gobernu taldea: zuzendaritza taldea izan delarik hilabetero aurrekontuen jarraipeneko batzordean gainontzeko alderdiei informazioa eman dietelarik..

Honela, Uztailaren hasieran Itxaslehor eta udal kultura saila batzartu ziren udaletxean. Itsaslehorrek eginiko lana (karpeta batean bildurik) pasatu zion kultura sailari. Uztailaren aurreneko astean kultura sailak eman zion hasiera egitarauaren lanketari. Uztailaren aurreneko hamabostaldian bi bilera burutu ziren udal gobernua eta teknikarien artean egitaraua zehazteko. Uztailaren bigarren hamabostaldian egitaraua zehaztu genuen eta 20tik aurrera ekitaldiak antolatzen zituen enpresak eta elkarteek konfirmazioak hasi ziren egiten. Baita azpiegituren arduradunekin bilerak ere. Uztailaren 20tik aurrera esku egitarauaren lanari ekin zitzaion. Dorso estudio diseinagileak kartela eta esku-egitarauari ekin zion. Geroago inprentara bidali zuen eta abuztuaren aurreneko hamabostaldian kartelak eta esku egitarauak kalean zeuden. Abuztuaren aurreneko hamar egunetan kaleratu zen esku-egitaraua eta Banatzeari ekin zitzaion apurka-apurka.

Abuztuan zehar kartelak ere jartzeari eman zitzaion hasiera. Irailaren 17an,

eszenatokia jartzen hasi ziren. Irailaren 23an, karpa nagusia jarri zuten. Irailaren 24an, kamerinoak eta hesiak jarri zuten. Irailaren 25ean hondartzako azpiegiturak jarri ziren (karpak, moduloa...). Irailaren 24tik 28ra jaialdiaren ospatu zen.

4. Komunikazioa balorazioa:

4.1 Sopela Kosta Fest-en helburuak komunikatiboak

Jaialdia turismoa indartzeko ideia bezala sortu zen, baina gerora beste hainbat helburu izan ditu (ia-ia hasierako helburu hori gaindituz).

- Sopelan turismoari bultzada eman, eskaintza berri baten bidez.
- Herritarrei kalitatezko programazioa eskaini.
- Sopelak surfean duen izena aprobetxatu eta indartu.
- Surfaz gain, Sopelan ere bestelakorik ere badela adierazi, surfaren tiroitik abiatuz.
- “Sopela” izenari bultzada eman.
- Sopela Uribe Kostako erreferente kultural gisa irudikatu.
- Herriko komertzioei bultzada eman.
- Azken urteetan herrian egindako lana lau haizetara zabaldu.
- Sopela naturaren babesarekin lotu.
- Sopela irudi positiboekin lotzen jarraitu: bizitza duen herria, kultura maila handia, gure herriak duen “boom”-ari bultzada eman e.a.
- Udalaren posizioa ere indartu: gazteek Udalarekiko mesfidantzak kendu, identifikazioa bultzatu...
- Herriko nortasuna indartu, Sopelakoa izateaz harro egoteko sentimendua (poltsak alde batetik bestera eraman, Kosta Fest-en berri emanez...).

4.2 Komunikazioa

Sopelako Udaleko komunikazio arlotik azken urteetan egin den esfortzu komunikatiborik handiena egin da jaialdiarekin. Apustua potentea zen, egitarau luze eta indartsua, eta komunikazioan egindako ekarpena ere ildo berean joan da.

Clipping-a

Iraila amaieran Sopelan jaialdi bat antolatuko zela iragartzen hasi zenetik oihartzun zabala izan du bai hedabideetan, eta baita sare sozialetan ere. Igarten da horrelako ekimen baten nahia zegoela, eta harrera ona izan zuela hasieratik.

Komunikazioa hainbat botetan egin zen (lehenik eta behin jaialdia beraren filosofia, ostean musika-taldeen izenak, geroago jaialdiaren xehetasunak eta azkenik faroltxo solidarioen ekimena).

Bote guztiak kontuan hartuz, honakoa de press clipping-a:

Hedabideetan

EITB (Euskadi Gazteako web orria, Radio Euskadi, Eitb Kultura, Teleberria...)

EL CORREO (lau aldiz irten zen albistea, eta beste bi aldiz GPS gehigarrian).

DEIA (lau aldiz, eta jarraipen zabala Hemendik aldizkaritxoan)

GARA (orrialde osora, eta Naizeko berezitetan)

BERRIA (orokorra eta Bizkaiko Hitza)

HERRI IRRATIA

BIZKAIA IRRATIA

UK ALDIZKARIA

UKBERRI

ABC

BIZKAIE

URIBE FM

Musika munduko hamaika web: mondosonoro, bilbolos, muzikalia, bizkaimusic, laganzua, conciertosultrasonicos, insonoro, musikazuzenean...

Surf mundukoak: Euskal Surf, EHSF, surfsearchspot, costasurf, watersports...

Beste hamaika web orri: Bilbaofree, Ander Deuna Ikastola, muzikalia, Bertsozale, noiz agenda, bilbofest, deruting, turismorural, gaztebiz, nontzeberri...

Iragarkiak

Euskadi Gaztean kuñak

Hamaika Telebistak spota (+ pantaila erraldoia)

Garan iragarkia

Naiz.eus web orrian bannerra

Deiaren "Magazine ON" aldizkarian iragarkiak

Bilboko Turismoko aldizkarian iragarkia

Sare sozialak

Jaialdiak jarraipen zabala izan du sare sozialetan, bakarrik alderatu daiteke Sopelako jaiak izaten duten oihartzunarekin.

Udaleko Facebook-ean:

Uztailak 24 (musika-taldeen berri): 2206 pertsonak ikusi zuten, 48 atsegite, 21 elkarbanatze.

Irailak 4 (gogoratzen): 476 pertsonak ikusi zuten, 16 atsegite.

Irailak 15 (spota): 1640 pertsonak ikusi zuten, 19 atsegite, 13 elkarbanatze.

Irailak 23 (bihar hasiko da): 2078 pertsonak ikusi, 15 atsegite, 23 elkarbanatze.

Irailak 24 (gaur hasiko da): 1472 pertsonak ikusi, 25 atsegite, 15 elkarbanatze.

Irailak 25 (kronika zinema): 796 pertsonak ikusi, 14 atsegite, 3 elkarbanatze

Irailak 26 (hirugarren eguna): 909 pertsonak ikusi, 11 atsegite, 3 elkarbanatze

Irailak 29 (post): 196 atsegite, 26 elkarbanatze.

Urriak 1 (surf bideoa): 562 pertsonak ikusi, 13 atsegite,

Urriak 3 (bideoa): 548 ikusi, 13 atsegite.

Orain arte Udaleko Facebook-ak izan duen ekitaldirik arrakastatsuen izan da zalantzarik gabe, jaiekin batera. Jaietan, baina, herriko jendea agertzen delako izaten da arrakastatsua, kasu honetan jaialdia bera izan da arrakasta izan duena.

Gainera, jaialdiak ere Udaleko Facebook-a indartzeko balio izan du, eta bestelako egitasmoak ere zeharka bultzatzeko.

Udaleko youtube kontuan:

Spota: 885 ikustaldi.

Bideo-kronika: 395 ikustaldi.

Udal web orria

17-07-2014 (filosofía): 3886 gazteleraz 847 euskaraz

24-07-2014 (musika taldeak): 2484 gazteleraz 485 euskaraz

10-09-2014: (faroltxoak): 901 gazteleraz 207 euskaraz

22-09-2014 (hastear): 1238 gazteleraz 181 euskaraz

29-09-2014 (kronika) 311 gazteleraz 137 euskaraz

Sopela kosta fest-en web orria

Uztailean: 217 bisita.

Abuztuan: 846 bisita.

Irailean: 10.760 bisita.

Urrian: 541 bisita.

Guztira: 12.364 bisita.

Bisitarien jatorria Espainiar Estatukoa izan da alde handiarekin. Horren ostean, Herbehereak, Estatu Batuak, Finlandia, Brazil eta Ukraina.

Bisiten %70, 30 segundokoak izan dira (kontsultak egiteko).

4.3 Zailtasunak eta gabeziak

- Jaialdi berria izanda, eta lehenengo urtea izanik, esfortzu berezia egin behar zen jaialdia bera ezagutzera emateko, erreferente bihurtu arte.
- Hedabide handietan eragina lortzea, orain arte gabezia izan da.
- Sopelatik kanpo hedatzea, Bizkaian erreferente bihurtzea.
- Orain arte izan ditugun muga batzuk apurtzea: surfaren munduan egon daitezkeen mesfidantzak, Udalaren markak izan ditzakeen mugak e.a.
- Publiko berria erakarri behar zen; orain arte mugiarazi ez duguna.
- Izaera partehartzaile eskasa izan du antolaketak.
- Komunikazio arloan hainbat arlo aurreikusi barik: giza baliabide gutxi (ohiko Udalekoa), kartel pieza gehiago sortu, web-ean ezin jarri albisteak, eszenatokia atondu, seinalitika, kartelak jartzea Sopelan eta Sopelatik kanpo...

4.4 Alde onak

- Jaialdiaren diseinua: Dorso Estudiok egindako lana, funtzionatu du, irudi garbia, erakargarria, herriarekin lotura.
- Oso errez komunikatu da, egitarau potoloa, erakargarria, izenak funtzionatu du berehala, Sopela Munduan-ekin alderatuta, "mundo bat".
- Komunikabideen arreta bereganatu du hasiratik, oihartzun mediatiko handia izan du.
- Mezua bera heldu da: natura+musika+surfa. Ez da desbirtuatu.

- Sare sozialetan oso harrera ona izan du.

4.5 Piezen balorazioa

- Kartela: kartel orokorrak ederto funtzionatu du, irudi moduan garbia, ordenatua, herriarekin identifikatua.
- Esku-egitaraua: irakurterraza, erakargarria, formatu originala, papera.
- Web: estetikoki ederra, intuitiboa, baina oso estankoa, dinamismo falta.
- Poltsak: oso ondo funtzionatu dute, harrena ona, kalitatezko merchandising-a. Hurrengo urtean beste sorpresatxo bat.
- Surf-oholak: ederto, ikusgarriak, originalak, jokia eman dute, inprobisatzeko aukera ematen dute, deigarriak.
- Bideo/argazkiak: oinarri-oinarriak bete dira, spot bat grabatu da aurretik Hamaika TB-rekin, jaialdi osoan zehar argazkiak atera eta bideoak grabatu dira, baina hurrengoetarako beren-beregi norbait kontratatzea aztertu zitekeen. Jaialdiaren post-a ondo landu behar da.
- Faroltxoen txarteltxoak: egoki, gehitu behar eguraldiak baldintzatuko duela jarduera hau.
- Surf kartela: ez dugu gehiegi mugitu, kartela egokia zen baina ez dugu giza baliabiderik izan lau haizetara zabaltzeko.

5. Ekintzen balorazioa eta etorkizunerako hobekuntzak

(Anexo 1 eta anexo 2 dokumentuak atxikituta daude)

6. Brigadako balorazioa

Brigada nagusiki honako lanetan aritu izan da: estenatokien muntaian, balla eta konteetoreen kokatzean, leku batetik bestera eraman behar ziren gailuen garraioak egiten

Lanak, zehaztapena ona izan da eta denbora nahikoarekin antolatua. Festibalaren antolakuntzarako hau garrantzitsua zen euskal jaiaren gertutasunak lanen ejekuzioa mugatzen baitzuen. Festibalaren balorazio orokorra egiterako orduan, kulturakoen lana azpimarratzekoa izan da antolakuntzari dagokionez dena ondo atera zedin. Alkatetzaren inplikazioak lanen antolakuntzan eta elkartearen parte hartzea azpimarratzekoa ikusten du Brigadako arduradunak

(Obra eta zerbitzutako gaztelerazko informea bukaeran atxikituta duzue). Anexo

7. Turismoko balorazioa

Lehenik eta behin, estatistikei buruz hitz egin behar da, 2013. urtearekin konparatuz, igoera nabarmena izan dugu.

2014: IRAILAK 24-28	2013: IRAILAK 24-28
400 PERTSONA	163 PERTSONA

Datuetan ikus daitekeenez, data berdinetan pertsona kopuru bikoitza baino gehiago izan dugu. Hortaz, turismoari dagokionez, esan genezake, Sopela Kosta Fest bultzada oso positiboa izan dela.

Bisita gidatura 28 pertsona joan dira. Normalean, egiten ditugun bisita gidatuetara gehienez 15 pertsona joan daitezke, baina, kasu honetan, eskaera askoz ere handiagoa izan denez, kontuan hartu ditugu jendearen eskakizunak, eta beste begirale bat kontratatu dugu, jende kopuru bikoitza joateko.

Horrez gain, Sopela Kosta Fest-eko poltsak banatu ditugu Sopolbusa erosten duten pertsonen artean. Honek, harrera oso ona izan du jendartean, eta Sopolbuseko txartelen salmenta igo egin du. Gainera, surf eskolentzako, parapente enpresentzako, eta beste elkarte batzuentzako, poltsak prestatu ditugu haien artean banatzeko. Esan beharra dago, Euskal Jaian banatzeko poltsak prestatu ditugula ere.

Faroltxoen salmenta turismotik egin da, turismo bulegoan 150 faroltxo saldu ditugu, eta beste 150 informazio puntuan. Aipagarria da hainbat bisita faroltxoak erosteko jaso ditugula. Azkenik, Sopela Kosta Fest-eko azkenengo egunean, faroltxoen hauen banaketa kultura saileko lankideekin batera hondartzan egin dugu, non konturatu gara aktibitate honek izan duen arrakasta handia.

Laburbilduz, gure ikuspuntutik, jendartean Sopela Kosta Fest-aren antolaketa oso harrera ona izan du.

8. Udaltzaingoaren balorazioa

2014ko irailaren 26, 27 eta 28 egunetan gabeko Udaltzain zerbitzu berezia izan zen.

Aipagarriak izan daitezkeen ekintzen inguruan bakarrik aipatu beharrean gaude, eta ez zen ospakizunen zonaldean eman, herriko beste taberna batean baizik, Indians tabernan hain zuzen ere.

Irailak 27 eguneko gauan musika kontzertua gaueko 02:00etan bukatu zen, eta 28 eguneko kontzertua 03:30etan bukatu zen.

(Udaltzainen balorazio informea gaztelaniaz atxikituta daukazue.)Anexo 4

9. Festibalaren balorazio orokorra eta herrian sortarazitako inpaktua

Komertzianteei bidalitako inkesta (anexo 5)

Tabernariei bidalitako inkesta (anexo 6)

Parte hartzaileek egindako inkesta (anexo 7)

10. Ondorioak:

- 33 ekinaldi burutu ziren arrakasta handiz eta eguraldia lagun.
- 10.000 ikusle/parte hartzailetik gora izan ziren jaialdian zehar, beraz ikusle aldetik jaialdia arrakastatsua izan zela adieraz dezakegu.
- Egitararen aniztasuna nabaria da. Adin guztientzako ekitaldiak izan ziren: haurrak, gazteak, helduak. Ikusle mota guztiek izan zuten lekua jaialdian.

- Sopelako 9 elkarterekin (surf, parapente, kantagintza, gastronomia...) elkarlanean aritu ginen, beraz, herriaren esku hartzea nabarmena da.
- Sopelako, Uribe Kostako eta inguruko 13 enprekin egin du lan jaialdiak. Ekonomia sortarazten duen adierazlea izanik.
- 40 komunikabidek zabaldu zuten jaialdiaren marka. Berezki EITBren presentzia nabarmendu beharrean gaude. Honek Sopela izenaren inpakto mediatiko nabarmena adierazten du.
- Inpaktu sozial eta ekonomikoa azpimarratu behar dugu herriko ostatu enpreetan. (hemen falta da tabernarien inkesten emaitzaren isla)
- Jaialdiak sortarazi zuen giro alai, parte hartzailea eta erakargarria herriaren konpaktazioa eta baloreak hobesten ditu.

11. Ekintzen azalpen ekonomikoa eta partidaka desglosea.

(dokumentuaren bukaeran atxikituta dago) anexo 8